

# Urbat-Urko tronik waterpolo taldea

Eibarko taldea izan arren, azken 8 urteetan Ermuko kiroldegiko igerilekuan jokatzeko du Urbat-Urko tronik waterpolo taldeak. Entrenatzailea ere, ermuarra da, Jose Luis Ferrer eta 10 urte beteko ditu aurten taldeak. Euskal Herriko eta Gipuzkoako ligan dabiltza murgilduta. Emaitzak momentuz ez dira nahi bezain onak, taldea gaztetu eta eraberritu egin baita, baina emaitzen gainera talde giroa da nagusi.

**O**rain dela 10 urte, igeriketan aritutako zenbait kide elkartu eta waterpolo taldea eratu zuten Eibarren. Urbat waterpolo taldea, hain zuzen. Hasierako talde hartatik 2 kide besterik ez dira gelditzen, Jose Luis Ferrer

gaur egungo entrenatzailea tarteko. Urte guzti hauetan, makina bat gazte pasa da taldeetik eta gaur egun, 25 lagunek osatzen dute taldea. Eibarko ligan kiroldegian entrenamenduak burutu arren, uraren sakontasuna eta igerilekuaren zabalekera eta luzerak ez dituztenez



waterpoloko arauak betetzen, Ermuko kiroldegian jokatu dituzte beraien partidak azken 8 urteotan. Ikusle askorik izaten ez duten arren, apur batzuk beraien arreta izaten dutenik ere bada.


Denboraldia, urri aldera hasten dute eta maiatzera bitartean, Gipuzkoako eta Euskal Herriko ligan hartzen dute parte. 16 urte ditu taldeko gazteenak eta 37 inguru zaharrenak. Belaunaldi ezberdin asko batzen ditu taldeak eta azken urteotan taldea eraberritu egin da. Ondorioz, emaitzak ez dira nahi bezain onak izan, baina etorkizunari begira horrek taldearen jarraipena bermatu du. Aurtengo denboral-

dian gainera, babesle baten laguntza izan dute, Urko tronik enpresarena.

Astean zehar 4 entrenamendu saio burutzen dituzte eta asteburuan izaten dute partida. Waterpoloan aritzeko dohai nagusia, igerian ondo jakitea da eta gutxienez 15 urte izatea.

Eibarko Orbea frontoia zen tokian, igerileku berri bat eraikitzen ari dira eta aurreikuspenak betetzen badiira etorkizunean, han izango dute waterpoloan aritzeko igerileku egokia. Hori hala bada, asmoa dute belaunaldi gazteei waterpoloan aritzeko aukera eskaintzea, kirol honen harrobiak jarraipena izan dezan.

Asier Ibaibarriaga





## URRETA

burdindenda

<ul style="list-style-type: none"> <li>* Etxea</li> <li>* Tresneria</li> <li>* Brikolaia</li> <li>* Rielak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Giltzak</li> <li>* Zerrailgintza</li> <li>* Kit altzariak</li> </ul>
---	---

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



## ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegiarako tratamenduak
- Masaieak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatutako
- Kontsulta mediko-estetikoa





Aldapa 1 943 17 60 52